

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

## 3. MAILA

### AZTERKETA IDATZIA

2009ko URRIA

Ereduak

A B

Aztertzaileentzako orriak



# HABE

## ZUZENKETARAKO OHARRAK

Azterketa bakoitzari **idatziaren ebaluazio-fitxa** edo emaitzen fitxa bat dagokio. Azterketaren puntuazioa fitxa horretan idatzi behar da. Ikaslearen datuak fitxan idatzita izango ditu aztertzailleak, eta azterketaren barruan jasoko du fitxa hori.

Azterketaren batean fitxa falta bada, badaezpadako fitxa hutsak ere izango ditu, ikaslearen datuak eskuz bete eta puntuazioak bertan jartzeko.

Hiru atal hauen emaitzak idatziko dira fitxan:

ENTZUMENA	gehienez, 20 puntu (gutxienez, 10)
GRAMATIKA ETA LEXIKOA	gehienez, 10 puntu (gutxienez, 5)
IDAZMENA	gehienez, 30 puntu (gutxienez, 15)
IRAKURMENA	gehienez, 10 puntu (gutxienez, 5)

Emaitzen orriak beteta eta azterketak zuzenduta itzuliko dira HABEra.

## Azterketaren puntuazioa 3 MAILA

### Entzumena

Hiru atal dira. Atal bakoitza bi aldiz entzungo da.

Lehen atala, **puntu 1** erantzun zuzen bakoitzeko. **8** galdera dira. Denera, 8.

Bigarren atala, **puntu 1** erantzun zuzen bakoitzeko. **7** galdera dira. Denera, 7.

Hirugarren atala, **puntu 1** erantzun zuzen bakoitzeko. **5** galdera dira. Denera, 6.

Denera, **20 puntu**, gehienez (gutxienez, 10).

### Gramatika eta lexikoa

#### Esaldiak berridatzi

10 esaldi dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **0,5 puntu** lortuko dira. Denera, **5 puntu**.

#### Baliokidea aukeratu

10 hitz dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **0,5 puntu** lortuko dira. Denera, **5 puntu**.

Denera, **10 puntu**, gehienez (gutxienez, 5).

### Irakurmena

3. mailan hiru testu irakurriko dira.

**Lehenengo testuak** egiteko bakarra du.

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 3 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko du. Denera, **3 puntu**.

**Bigarren testuak** egiteko bakarra du.

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 5 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko du. Denera, **5 puntu**.

**Hirugarren testuak** egiteko bakarra du.

Egitekoa: erantzun zuzena aukeratu. 2 galdera dira. Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko du. Denera, **2 puntu**.

Hiru testuen artean **10 puntu** lor daitezke, gehienez (gutxienez, 5).

# HABE

## Idazmena zuzentzeko oharrak

- Zuzentzeko **arkatza** erabili.
- Akatsak ikusten direnean, gaizki dagoen zatitxoaz azpimarratu eta alboko ertzean jarri akatsaren laburdura.
- Ortografia eta puntuazio-marka desegokiak adierazteko, gaizki dagoena biribildu eta **ertzean ez jarri** laburdurarik.
- Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinalatu.
- Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.
- Idazlanaren ertzean laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrientzat:  
? ulergaitza, ✓ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailu desegokia, **(-)ks** kohesioa, **(-)kz** koherentzia, **egok** egitura desegokia, **(ø)** soberan.
- Kontuan izan ebaluazio-irizpideak (egitekoa bete / koherentzia eta kohesioa / gramatikaren eta lexikoaren aberastasuna / zuzentasuna), eta baloratu ondoren jarri azken emaitza.

**Gehienez, 30 puntu. Gainditzeko, gutxienez, 15 (ikus eranskina).**

## ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

### Egitekoa bete

Eskatutakoa zein neurritan bete duen:

- Eginkizuna: eskatu zaiona erabat bete duen; beharrezko informazioa aukeratu duen; argudio/adibide ugari/gutxi ...
- Erregistroa: Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak zaindu dituen; testu mota ongi aukeratu duen; eskatu zaion erregistroa erabili duen formala/informala ...).
- Gutxienerako hitz kopurua idatzi duen.

**Egitekoa:** Bi gai eman zaizkio aukeran. **Bat** aukeratu behar du gazte aldizkari batean **iritzi-artikulua** idazteko.

**Gaiak:** "Publizitatea: produktu onak bezainbeste balio du ondo saldutakoak" eta "Noiz alde egin behar dute seme-alabek etxetik?".

Lehen gaian, iritzia ematearekin batera, publizitateak nola saltzen duen eta guk zergatik erosten dugun azaldu. Bigarren gaian, iritziaz gain, seme-alabek gurasoen etxetik zein garaitan alde egin beharko luketen zehaztea eta arrazoitzea.

Testu mota: Iritzi-artikula. Formatoa: gazte aldizkaria.

Azterketariari azterketan bertan jakinarazi zaio testuaren aberastasuna eta zuzentasuna baloratuko zaizkiola.

Gidoia edo puntuak input moduan hartu behar dira. Ez dira denak nahitaez erabili behar, aukeran ematen zaizkio ikasleari.

### Koherentzia eta kohesioa (moldea, diskurtsoaren antolaketa...)

- Ideien eta egituren arteko lotura: testu koherentea egin duen; erraz ulertzen den; hari logikoa duen...
- Testuaren egituratze orokorra: paragrafoak ondo antolatuta dauden; kohesioa duen, bai esaldien artean, bai paragrafoen artean; antolatzaileak nola erabili dituen...

### Gramatika eta hiztegiaren aberastasuna eta zuzentasuna

- Egitura sintaktiko aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak...
- Egitura morfosintaktikoen erabilera: izen-sintagma, aditza, deklinabidea...
- Lexikoaren erabilera: zehatza eta adierazkorra/desegokia edo urria.

# HABE

- Akatsak: komunikazioa eragozten dute, inoiz ez/zenbaitetan...  
Ebaluazio-orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, **ez azterketan**.  
Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere *EZ GAI* baldin bada.

## **BIRZUZENKETAK**

Aztertzaileak zalantza handiak baditu azterketa bati puntuazioa ematerakoan, hala adieraziko du, eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio HABEri emaitzak eramaten dituenean. Azterketa hori beste aztertzaile bati emango zaio berriz zuzentzeko.

Gainerakoan, HABEK erabakiko du birzuzenketak nola egin.

# HABE

## Entzumena, gramatika eta lexikoa, eta irakurmena

Hiru zati horien zuzenketak ongi idatzi ebaluazio-orrrian. Puntuak ongi batu, eta **batuketa errepasatu**. Puntuazioa emateko edo erantzunen bat onartzeko zalantzarik baldin baduzu, deitu tutoreari.

### A EREDUA

#### ENTZUMENA

A eredua	1	A	2	C	3	B	4	A	5	C
	6	C	7	B	8	A				

A eredua	1	E	2	G	3	E	4	G	5	E
	6	E	7	E						

A eredua	1	B	2	C	3	A	4	C	5	B

#### ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzunak)

1. Baserri aurrera ailegatu zenean goiko zatia irekirik egotea/egon izana kezkarria egin/iruditu **zitzaion**.
2. Egiazko arrazoia **gorabehera**, Aneren erabakiak gauzatu egin ziren.
3. Nik beti pentsatu izan dut musika asmatu zuen **aren helburua** gizakia eromenetik libratzea izan zela.
4. **Bai** txarto ibili nintzela lagunak antolatutako jaialdi hartan!
5. Zure lagun horrek gogor **ekin** beharko dio ikasteari azterketa guztiak gaudituko **baditu**.
6. Gaurko gizartean arrakasta izateak **adinako** garrantzia du dirua izateak.
7. **A zer** (nolako) bakea hartuko lukeen igeltseroek etxea konpontzeko lanak behin betiko bukatuko **balituzte**.
8. Inoiz benetako batasunik lortzekotan, alde batekoek eta bestekoek aldaketak barneratzeko prest egon behar dute.
9. Igogailuetan ez da eguraldia baino egokiagoa den **mintzagairik**. Igogailuetan ez dago eguraldia bezalako **mintzagairik**.
10. Gure egitekoa geure artean lehiatzea **barik**, beharrei erantzutea da. Gure egitekoa, geure artean lehiatu **barik**, beharrei erantzutea da

### LEXIKOA

A eredua	1	C	2	B	3	A	4	D	5	A
	6	C	7	D	8	A	9	D	10	B

### IRAKURMENA

A eredua	1	C	2	A	3	C	4	D	5	D
	6	B	7	D	8	C	9	A	10	B

# HABE

## B EREDUA

### ENTZUMENA

B eredua	1	C	2	A	3	A	4	B	5	A
	6	B	7	B	8	C				

B eredua	1	E	2	G	3	E	4	E	5	E
	6	G	7	G						

B eredua	1	A	2	B	3	C	4	A	5	C

### ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzunak)

1. Nik beti pentsatu izan dut musika asmatu zuen**aren helburua** gizakia eromenetik libratzea izan zela.
2. **Bai** txarto ibili nintzela lagunak antolatut**ako** jaialdi hartan!
3. Baserri aurrera ailegatu zenean goiko zatia irekirik egotea/egon izana kezkarria egin/iruditu **zitzaion**.
4. Egiazko arrazoia **gorabehera**, Aneren erabakiak gauzatu egin ziren.
5. **A zer** (nolako) bakea hartuko lukeen igeltseroek etxea konpontzeko lanak behin betiko bukatuko **balituzte**.
6. Inoiz benetako batasunik lort**zekotan**, alde batekoek eta bestekoek aldaketak barneratzeko prest egon behar dute.
7. Zure lagun horrek gogor **ekin** beharko dio ikasteari azterketa guztiak gaindituko **baditu**.
8. Gaurko gizartean arrakasta izateak **adinako** garrantzia du dirua izateak.
9. Gure egitekoa geure artean lehiatzea **barik**, beharrei erantzutea da. Gure egitekoa, geure artean lehiatu **barik**, beharrei erantzutea da.
10. Igogailuetan ez da eguraldia baino egokiagoa den **mintzagairik**. Igogailuetan ez dago eguraldia bezalako **mintzagairik**.

### LEXIKOA

B eredua	1	A	2	D	3	C	4	B	5	C
	6	A	7	B	8	C	9	B	10	D

### IRAKURMENA

B eredua	1	B	2	C	3	B	4	B	5	B
	6	D	7	B	8	A	9	C	10	A

# HABE

## HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA

### ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

#### HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

<b>A zatia</b> <b>50</b> <b>(gutxienez 28)</b>	Idazmena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	1h 15 min
	Gramatika eta hiztegia	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	25 min
	Irakurmena	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	45 min
<b>B zatia</b> <b>50</b> <b>(gutxienez 27)</b>	Entzumena	% 20	Gutxienez 10 puntu	20 puntu	25 min
	Mintzamena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	10 min
<b>GUZTIRA</b>		<b>%100</b>	<b>Gutxienez 55 puntu</b>	<b>100 puntu</b>	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/ EZ GAI**.

#### Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

**EGITEKOA BETE.** Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.

**KOHERENTZIA ETA KOHESIOA.** Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.

**GRAMATIKA ETA HIZTEGIAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA.** Gramatika egiturak. Lexikoa. Joskera.

Ortografia.